

**ORDENANTZA FISKALA, LIZENTZIAK EMAN ETA HIRIGINTZAN
BESTELAKO JARDUKETAK EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN
ORDENANTZA FISKALA**

2010eko ekainaren 9ko 70. NAOn argitaratua

Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehen tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz (delako Legea martxoaren 2ko 4/99 Legeak aldatu zuen tasa eta prezio publikoen arloan).

Zergapeko egintza

2. artikulua. Zergapeko egintza hirigintzako jarduketei dagozkien zerbitzu tekniko eta administratiboak ematean datza, etxegintzari eta lurzoruaren erabileraren arloko egintzak indarra duten hirigintza eta eraikuntza arauetara egokitu ahal izateko.

3. artikulua. Tasa hauei loturiko udal ekintza hirigintzako jarduketa hauetan gauzatzen da:

1.-Partikularrek aurkeztu antolamendurako plan partzial edo bereziak eta haien aldaketak, xehetasun azterlanak, aurrerapen azterlanak, antolamendurako planen aurrerapenak edo aurreproiektuak eta birzatiketak tramitatzea.

2.-Partikularrek aurkeztu urbanizazio proiektuak tramitatzea.

3.-Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/200 Foru Legearen 189. artikuluan zehaztutakoak.

4.-Mota guztietako eraikuntza eta instalazio obrak, oin berrikoak badira.

5.-Lehendik dauden mota guztietako eraikin edo instalazioak handitzeko obrak.

6.-Lehendik dauden eraikinen edo instalazioen egitura edo kanpoko itxura ukitzen duten obrak, aldatzekoak edo berritzekoak.

7.-Eraikinen barneko egitura aldatzen duten obrak, edozein izanik ere duten erabilera.

8.-Behin-behineko obra eta erabilerak.

9.-Hirigintzako lurzatiketak eta landa finken banaketa eta zatiketak.

10.-Lur-mugimenduak, hala nola lurrerauzi, zelaitu, hondeatu eta betetzeko lanak, salbu eta lan horiek onetsitako urbanizazio edo eraikuntza proiektu baten barrenean zehaztuta eta programatuta badaude.

11.-Lehen erabilerako lizentziak edo, oro har, eraikinak eta instalazioak okupatzekoak.

- 12.-Eraikinak eraistea, salbu eta berehalako hondamen egoera deklaratzeko denean.
- 13.-Zorupari eragiten dioten instalazioak.
- 14.-Arbolak eta zuhaixkak botatzea, baldin eta zuhaitz masa, basogune, arboladi edo parke badira, planeamendu onetsia izan ala ez, salbu eta nekazaritzaren arloko legeek baimentzen dituzten lanak direnean.
- 15.-Eremu publikotik ikusten diren kartelak paratzea, betiere lokal itxietan ez badaude.
- 16.-Presa, baltsa eta defentsa-obra egin eta ubide publikoak zuzentzea, interes orokorreko obra publikoak ez badira.
- 17.-Agregakinak ateratzea eta harrobiak ustiatzea, jabari publikoko lurretan egin eta administrazio kontzesioa behar izanda ere.
- 18.-Finkak ixtea.
- 19.-Eta, oro har, erregelamendu bidez adierazten diren egintzak, obra gisa hartzen direlako, edo lurzorua nahiz zorupearen erabilera handitzen delako, haien erabilera pribatiboa dakartelako edo erabilera ez-normala edo lurren berezko nekazaritza edo basogintzako erabileraz bestelakoa dakartelako.

Ordaindu beharra

4. artikulua. 1. Orokorrean, zergak ordaintzeko betebeharra lizentzia ematen den unean sortzen da. Eskaerari uko eginez gero, betebeharra sortzen da hirigintzako jarduketara eskatzen den unean.
2. Plan partzialak edo bereziak eta haien aldaketak, xehetasun azterlanak, birzatiketak eta urbanizazio proiektuak eta planeamenduko aldaketak tramitatzean, haiek ebatzi edo behin betikoz onesten diren unean sortuko da zerga ordaindu beharra.

Subjektu pasiboa

5. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak eta nortasun juridikorik izan ez, baina unitate ekonomiko edo ondare berezia diren entitateak, baldin egindako hirigintzako jarduketengatik edo emandako lizentziengandik eragina edo onura hartzen badute.

Zergadunaren ordezkariak izanen dira, zoruari eta hiri-antolamenduari buruzko arauetan hirigintza lizentziak emateko aurreikusi diren tasetan, eraikitzaileak eta obra kontratistak.

Tarifak eta karga-tasak

6. artikulua. Aplikatu beharreko tarifa, tasa eta karga-oinarriak ordenantza honen eranskinean agertzen dira.

Lizentzien tramitazioa eta horien ondorioak

7. artikulua. Hirigintzako jarduketak egiteko eskabide guztiak aplikatzekoa den araudian aurreikusten den bezalaxe bete beharko dira.

8. artikulua. Emandako baimen edo lizentziek ez dute ondoriorik izanen dagozkien tasak ordaindu izanaren frogagiria ez badute.

9. artikulua. Lizentzien iraungipenari dagokionez, lizentzia onartu eta urtebetera gertatuko da lizentziaren xede den jarduketa hasi ez bada, eta bi urtera, berriz, lizentziaren xede den jarduketa edo obrak burutu ez badira, plan berean edo emandako lizentzian aurreikuspenak kontrakoak direnean salbu.

Lizentzia iraungita, interesdunak hura berritzeko eskatzen ahal dio Udalari, eta horrek hala nahi duelako baimentzen badu, obrari jarraipena edo bukaera ematen ahalko dio lehenago hasitako proiektuari jarraikiz, baina tasak ordaindu beharko ditu jatorrizko lizentziarekin egin gabeko obra edo obra parteagatik, %50 murriztuta.

10. artikulua. Lizentziaren titularrek uko egiten ahalko diote eskatutako obrak egiteari, Udalari ukoa idatziz aurkeztuz gero, betiere aipatu lizentzia iraungirik ez badago. Udalak lizentzia emateko erabakia hartu baino lehen egiten bada uko eta obrak hasi gabe badaude, lizentzia emandakoan legokiokoen tasaren %20 ordaindu beharko da. Lizentzia eman eta gero egiten bada uko, tasak %50 baizik ez dira gutxituko.

Kudeaketako arauak

11. artikulua. Planeamendurako espedienteak eta lizentziak tramitatzeko ardura duten bulegoetatik, udal teknikariek adostasun txostena eman eta gero, zergak likidatuko dituen bulegora igorriko dira espedienteak. Bulego horrek likidazioa egingen du, eta bertan honako hauek aipatuko ditu: subjektu pasiboaren izena, tasa zer kontzepturen arabera likidatzen den, tasaren tarifa eta zenbatekoa.

12. artikulua. Urbanizazio proiektuen tramitazioan, proiektua onesterakoan egingen da tasen likidazioa.

13. artikulua. Proiektu berean dauden obrak, ordenantza honetan ezarritako sailkapenaren arabera, kontzeptu bati baino gehiagori dagozkionean, tarifetan jarritako portzentajeak edo kopuruak aplikatzearen emaitza izanen da tasaren zenbatekoa.

14. artikulua. Lizentziak emateagatik ordaindu beharreko tasak behin-behinekoz likidatuko dira obraren kostuaren arabera.

Obraren kostua zehaztuko da hura gauzatzeko aurrekontuaren arabera, ordainsariak eta industria mozkina salbu.

Ordenantza honen eranskinean esaten denaz gain, tasaren ezarpen oinarriaren zatitzat hartuko da barne urbanizazioaren proiektuaren zenbatekoa. Horretarako, interesdunek, barne urbanizaziorako proiektua aurkeztu beharko dute, aurrekontu eguneratuarekin batera.

Ez dira tasaren zerga oinarriaren zati izanen beste elementu batzuk, hala nola, altzariak eta beste, ezta obra proiektuan funtsezko ez diren beste batzuk ere.

15. artikulua. Obra burutu edo behin-behinekoz onartu eta hurrengo hilabetean, inguruabar hori ziurtatzen duen aitortpena aurkeztuko da, obraren zuzendariak emandako ziurtagiriarekin batera, behar den elkargo profesionalak ikus-onetsia, bideragarria bada, zeinak obren kostu osoa ziurtatuko baitu.

Aipatutako kostua udal teknikariek aztertuko dute eta errealitateari ez zaiola egokitzen ikusten badute, egokitzen saiatuko dira, eta behin betiko likidazioa egingen da, obren kostu erreal eta benetakoa oinarritzat hartuz.

Partikularraren aldeko diferentziarik izanez gero, itzuli egingen zaio; Udalaren aldekoa bada, berriz, hura ordaintzeko hilabeteko epea emanen zaio. Ordaintzen ez badu, premiamendu bidez kobratuko da, besterik gabe.

16. artikulua. Tasaren likidazioa onetsirik, interesdunari jakinaraziko zaio, eta horrek ezartzen den epean ordaindu beharko ditu; hori egin artean ez du eraginik izanen lizentziaren gainean emandako ebazpenak.

17. artikulua. "Tramitazio laburreko" lizentzien kasuan, eskatzaileak Udal Diruzaintzatik hartuko du baimenaren agiria. Horrela geratuko da lizentziaren eta haren aplikazioaren jakinaren gainean.

18. artikulua. Edozein arrazoi dela-eta obrak egiteari uko egiten diotenen ez dute haiengatik ordaindutako tasen itzulerarako eskubiderik izanen.

19. artikulua. Edozein lizentzia edo obra mota egiteko eskaerak tramitatzeko beharrezko baldin bada, edo Alkatetzari komenigarria iruditzen bazaio, gaian adituak diren fakultatibo edo teknikarien txostenak eskatzea, eta horiek udal plantillakoak ez badira, edo Udalak modu iraunkorrean kontratatzen dituen hirigintzako eta ingurumeneko aholkulariak ez badira, haien minutak eta ordainsariak delako eskaera aurkeztu duten subjektu pasiboek ordainduko dituzte.

Arau-hausteak eta zehapenak

18. artikulua. Ondotik ematen direnak ordenantza honetako arau-hauste bereziak dira, ematen den tipifikazioarekin:

a) Arau-hauste arina: lizentzia eta behar diren tasak ordaindu izanaren ziurtagiria obra lekuan eta udaltzainen eskura ez izatea.

b) Arau-hauste larriak: hauek halakotzat hartuko dira:

-Udal administrazioari egindako obrek balio handiagoa dutela ez jakinaraztea eta haien aldaketan edo aurrekontuen aldaketaren berri ez ematea.

-Iruzurra. Obrak lizentziarik gabe egitea edo abiatzea.

-Faltsukeria egitea karga-oinarria zehazteko funtsezko ezaugarriak aitortzean.

-Obren kostu osoaren ziurtagiria ez aurkeztea, horien kostua lizentzia lortzeko aurkeztutako proiektuan aurreikusia dagoena baino handiagoa bada.

19. artikulua. Arau-hausteak Ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunaren Erregelamenduan aurreikusitakoari jarraikiz zehatuko dira; horiez gain, hirigintzako arau-hausteagatik Lurzoruari buruzko Legean ezarritako zehapenak ere paratzen ahalko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera behin betikoz onetsitakoan, ordenantza fiskal honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko guztiak izanen ditu, Nafarroako Aldizkari Ofizialean testua oso-osorik argitara emandakoan.

Bigarrena.-Ordenantza fiskal hau aldatzeko, onespenerako jarraitu diren tramite berak eginen dira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1.990 Foru Legearen IX. tituluko lehen kapituluko hirugarren atalean xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.-Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan aplikagarri izanen dira Ordenantza fiskal orokorrean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta udal erabakiak baino goragoko xedapen guztietan xedatzen direnak, araututako arloei aplikatzeko modukoak diren heinean.

TARIFEN ERANSKINA

2017ko abenduaren 22ko 244. NAOn argitaratua

I. epigrafea.–Antolamendurako plan partzial edo bereziak tramitatzea.

Espedienteak tramitatu eta ebazteko tasak plan bakoitzean hartutako lurzorua azaleraren arabera likidatuko dira, ondoko eskalaren arabera likidatu ere:

–5 hektarearaino: 0,05 euro/m².

–5etik 10 hektarea bitarteko soberakoa: 0,05 euro/m².

–10etik 25 hektarea bitarteko soberakoa: 0,04 euro/m².

–25etik 50 hektarea bitarteko soberakoa: 0,04 euro/m².

–50etik 100 hektarea bitarteko soberakoa: 0,03 euro/m².

–100 hektareatik gorako soberakoa: 0,03 euro/m².

II. epigrafea.–Plan partzial edo berezien aldaketak tramitatzea.

Aplikatzeko tarifak I. epigrafekoen %50 izanen dira.

III. epigrafea.–Antolamendurako planen aurrerapen edo aurreproiektuen tramitazioa.

Aplikatzeko tarifak I. epigrafekoen %25 izanen dira.

IV. epigrafea.–Birzaticeten eta banantzeen tramitazioa.

IV-A).–Birzaticeta espediente bakoitza tramitatu eta ebazteko tasak aprobetxamendu osoaren ondoriozko azalera edo bolumen eraikigarriaren arabera likidatuko dira, tarifa hauei jarraikiz: m² eraikigarri bakoitzeko: 0,10 euro.

IV-B.–Birzaticetak aldatzeko tramitazioa:

Tarifak IV-A epigrafean ezarritakoen %50 izanen dira.

IV-C.–Tasak, hirigintzako lurzaticetak, landa finken banantze eta zaticeta tramitatu eta ebazteagatik: Jatorrizko finkatik banandutako m² bakoitzeko: 0,05 euro.

V. epigrafea.–Eskatzaileek egindako urbanizazio proiektuak tramitatzea:

Tasak proiektua gauzatzeko aurrekontuaren zenbatekoaren arabera likidatuko dira, eta karga-tasa %1 izanen da.

VI. epigrafea.–Obra lizentziak eta finken itxiturak.

Obra lizentziaren tasa honako tarifa hauen arabera likidatuko da:

–Obra txikiak (lizentzia laburtua).

–6.010,12 euro bitarte (obra gauzatzeko aurrekontuarena): 25,50 euro.

6.010,12 eurotik goiti (obra gauzatzeko aurrekontuarena), aurrekontu horren %0,8, gehieneko zenbatekoa izanik obra handietarako tarte bakoitzean finkatua. Hona hemen:

–Obra handiak (obra gauzatzeko kostuaren arabera).

–120.202,42 euro bitarte: 94,20 euro.

–120.202,42tik 240.404,84 euro bitarte: 157,80 euro.

–240.404,84tik 601.012,10 euro bitarte: 218,90 euro.

–601.012,10 eurotik aurrera: 283,00 euro.

–Finkak ixteagatik eta ordenantza honen 3. artikuluko 15, 16, 17 eta 18 zenbakietan aurreikusitako jarduketak egiteagatik, tasak obra gauzatzeko kostuaren arabera likidatuko dira, eta %0,8ko karga-tasa aplikatuko da.

–Tasa ordaintzetik salbuetsirik daude zorupean egindako jarduketak eta lurren mugimenduei dagozkienak, hartarako lizentzia eskaturik egiten direnak.

VII. epigrafea.–Fuel-olio biltontziak edo antzekoak paratzeko lizentzia.

Obra bat egiterakoan, fuel-olio biltontzi bat edo antzeko zerbait paratzen bada, aurrekontuaren arabera likidatzen diren tasei gehitu beharko zaizkie kopuru hauek:

–5.000 litro bitarteko biltontziak: 104,85 euro.

–5.001 litrotik 10.000 litrora bitarteko biltontziak: 156,80 euro.

–10.001 litrotik 15.000 litrora bitarteko biltontziak: 207,70 euro.

–15.000 litrotik gora, soberako 1.000 litroko: 10,00 euro.

VIII. epigrafea.–Arbolak botatzeko lizentziak:

Obra bat egiteko edo hirigintzako jarduketa bat garatzeko beharrezkoa bada arbolaren bat botatzea, tasei kopuru hauek gehitu beharko zaizkie:

–Bota beharreko jabetza publikoko arbola bakoitzeko: 44,30 euro.

–Bota beharreko jabetza pribatuko arbola bakoitzeko: 15,00 euro.

IX. epigrafea.–Behin-behineko lizentziak.

Ezarrিতাকo tarifa arrunten halako biko zenbatekoa sortuko dute.

X. epigrafea.–Obrak prestatzeko behin-behineko baimenak.

Baimen bakoitzak sorraraziko duen tasa 16,70 euro/urtea da. Jakinarazpena aurreratzeko baimenengatik ez da ordaindu beharko. Kasu horietan, eskatuko da aldez aurretik ordaintzeko likidatutako tasak.

XI. epigrafea.–Lehen aldiz okupatzeko lizentziak.

–500 m² bitarte lehen aldiz okupatzeko: 0,26 euro/m².

–500 m²-tik 3.000 m²-ra bitarte: 0,12 euro/m².

–3.000 m²-tik gora: 0,10 euro/m².

XII. epigrafea.–Gutxieneko eskubideak.

Aurreko epigrafeengatik ordaindu behar diren tasak ondotik aipatzen diren gutxieneko zenbatekoetara iristen ez badira, honako hauek ordaindu beharko dira:

–Plan partzial edo bereziak tramitatzea: 383,80 euro.

–Plan partzial edo berezietan eta xehetasun azterlanetan aldaketak tramitatzea: 192,40 euro.

–Antolamendu planen aurrerapenak edo aurreproiektuak tramitatzea: 94,70 euro.

–Lurzatiketak (lurzati bakoitzeko): 44,80 euro.

–Birzatiketak: 384,80 euro.

–Finketako itxiturak: 35,00 euro.

–Banantzeak: ondoriozko lurzati bakoitzeko: 45,80 euro.

–Obra txikiak edo proiektu teknikorik behar ez duten obrak egiteko lizentziak: 25,50 euro.

–Oin berriko obrak, berrikuntzakoak eta eraispeneoak egiteko lizentziak, instalazioenak eta lizentzia behar duten gainerako ekintzak, betiere aurreko ataletan ez badaude: 26,20 euro.

XIII. epigrafea.–Erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurretiko komunikazioa behar duten egintzak, 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 192. artikuluan jasotakoak: 25,50 euro.